

# Altxorraren uhartea Karibe exotikoan ez, Londresen dago

Ekonomialariek aditu beharko liokete Nicholas Shaxsoni: “Itsu egon dira ekonomialariak paradisu fiskalei, horien sekretismoari eta zergen ihesari dagokienez. Zailak direnez ulertu eta neurtzeko, utzi dituzte bestek kudeatu beharreko arazo direlakoan. Hala, arazoa usteldu eta handitzen utzi dute, inork seriozki aurre egin barik”.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

TREASURE ISLANDS. ALTXORRAREN uhartea. Lerroburu horren ostean, Nicholas Shaxsonen liburuari Ingalaterrarako edizioan ipini diote “Paradisu fiskalak eta mundua ostu zuten gizonak”, Estatu Batuetarakoan “*Offshore* bankugintzaren eta paradisu fiskalen kalteak azalduz”. 2011n argitaratua, oraintsu atera dute frantsesezko bertsioa: “*Les Paradis fiscaux : Enquête sur les ravages de la finance néolibérale*”. Frantsesik edo ingelesik ez dakien euskotarrak itxaron beharko du.

Nicholas Shaxson da kazetari ingeles bat Afrikako Malawin sortua eta gaur Suitzako Zurichen bizi dena, *BBC*, *Foreigns Affairs* eta beste hedabide distiratsu askotan kronikak azaldua. Gaur Zergen Justiziarantzako Sarean (*Tax Justice Network*) ari da denbora osoz. Liburu famatua dela-eta egin zaizkion elkarrizketen artean, leitzekoak dira *New Left Project*erako Jamie Stern-Weinerek eta *Transition Culture*erako Rob Hopkinsek eginak.

Nicholas Shaxsonek bi ondorio nagusi azpimarratu ditu ikerlanean topaturikoetatik. Batetik, paradisu fiskaletan antolatutako finantza sistema askoz boteretsuagoa dela ekonomiaz idazten dutenek aitortzen dutena baino. 1970eko hamarkadatik egoitza atzerrian kokatuz zergak saihesteko sistema askoz arinago

garatu da, ekonomia bera batez beste handitu dena baino. Herrialde guztiek daukate gaur paradisu fiskalen antza gero eta handiagoa, atzerriko kapitalak erakartzearren elkarren kontrako lehia gogor ari direlako. Denek eskaintzen dituzte gero eta ihesbide nabarmenagoak zergen kobraketan, gero eta gehiago baimentzen iluntasuna konpainia handien kontabilitateetan.

Bigarren ondorio nagusia zera da Shaxsonen aburuz: zergentzako paradisu nagusiak ez daudela palmondoz hornitutako uharte karibetarretan, edo Monaco, Suitza edo Liechtenstein bezalako herrialde txikietan. Horiek ere badira, noski, Cayman uhartea diren moduan. “Baina benetan paradisu handienak Estatu Batuetan eta Britainia Handian daude. Honek berak magalean dauzka Gibraltar, Virgins, Cayman eta beste asko... Londresko muinean dagoen Citya elikatzen”.

*Treasure Islands*en irakurlea haluzinarazten dute *City of London Corporation* delakoaren xehetasunek. Londresko erdigune dotorean promenatu dena ez baita ohartu Erresuma Batuko hiriburuaren barnean 2,9 kilometro karratuko *Square mile* auzoa kasik independentea dela gainerako ingeles artean. Antzinako eskubideen oinordetza aldarrikatuz, lege propioak dauzka Cityak, agin-

Lauren Michelle Kinsey kazetari eta militante demokrata estatubatuarra Nicholas Shaxsonen *Treasure Islands* liburuaren erakusten iaz, Occupy mugimenduaren kanpaldi batean, egileak bere blogean jarritako argazkian. Shaxsonek deklaratu du: “Zergei ihes egitea teknikoki izugarri konplexua den arren, bere muinean oso gauza sinplea da: korporazio batzuek bide legal edo ilegalak erabiltzen dituztela beren zergak txikiagotzeko, eta ondorioz jende arruntak pagatu behar duela haien ordez. Benetan injustua da (...) Honen kontrako mugimendu pixka bat ari gara ikusten orain, baina Occupy eta UK Uncut bezalako mugimenduak hamar halakotzen direnean hasiko gara aldaketa posibilitatea ikusten. Bitartean, bankuek segitzen dute politikariei agintzen zer egin. Horretan ez dago aldaketarik. Orain artekoa lehen urratsa baizik ez da izan”.

tariak hautatzeko bozketa sistema erdiarotarra... gehi zergen sistema propioa. Hau ez da Londres, ez Ingalaterra: hau City da eta kito.

Britainiako koroa koloniak banan bana galtzen ari zenean, 1950ean, Londresko Cityak bere gain hartu zituen orduan *eurodollar*ak deitzen zirenak eta petrolio merkatua. Beti ere lurraldez kanpoko merkatutzat jotakuz. Horixe baita *offshore* kontzeptua: itsasoa tarteko lehorretik aparte dagoena, izan banku edo merkatu.

## Benetako agintariak

Bigarren fase batean, 1960 eta 1970eko hamarkadetan, Cityko eliteek dantzan jarri zituzten Karibeko kolonia ohiak gehi Jersey, Guernesey eta Man bezalako lurralde erdi-burujabeak, formalki independente zirela baliatuz zerga sistema bereziekin mundu osoko kapitala berenganatu zezaten. Londresko urrezko milia gizentzeko, prefosta.

*Offshore* bankugintza hori kontrolatzea gero eta zailago egin zaie denborarekin estatuei. Shaxsonek kontatzen du nola hasiera batean AEBetako funtzionarioek ere huts egin zuten Cayman uhartera ihes egindako kapitalak kontrolatzeko asmoan. Zientoka abokatu ari dira konpainien aholkularitzan, zergak pagatzea saihesteko gero eta siste-



Paradisu fiskalotan noren dirua dabilen galdetuta, Shaxsonek bere egiten ditu Raymond Bakerrek *Capitalism's Achilles Heel* (Kapitalismoaren Akiles orpoa) liburuan eskaintako kalkuluak. Alegia, oinezko herritarrek pentsa dezakeenaren oso bestela, droga trafikoak eta kriminalitateak horren herena osatzen dutela, politikoen ustelkeriak %3a eta gainerako bi herenak mundu osoko banku eta konpainia handi arras legalek eramandakoa dela. Denak, kriminal eta enpresaburu ohoretsu, finantza antolaketa bera baliatzen... zergarik ez pagatzeko.

Paradisugintzan txapelduna Londres denez, britainiarrei sinetsarazi nahi zaie etekinak herrialdearentzako direla. Azken urteotan zerbitzu publikoen murrizketaren kontra oldartu den *UK Uncut* mugimendua lan handia egin du jendeak ohartarazteko irabazle bakarrak Cityn egoitza duten eliteak direla.

Paradisuongatik estatuak zergak galtzen dituzte, zerbitzuak murrizten, eta kontribuzioak txintxo pagatzen dituzten enpresek konkurrentzia basatia jasaten dute. Hori dela eta, *offshore* sistema honen kontrako mugimenduetan ez dute ezkerreko jendeek soilik parte hartzen, sistema kapitalistak txukun funtzionatzea desio luketen enpresa txiki eta ertainak ere interesaturik daude.

Oraingoz, ordea, Cityrentzako lobbygintzan ari direnek indar handiegia dute. Hauekin hitzartuta iritsi zen Tony Blair agintera, ondoren David Cameron bezala. ■



ma sofistikuagoak antolatzen. Azkenerako, abokatu armada horiei pagatzeko adina indar daukatenez baizik ezin dute lehiatu diru beltzaren zuritzegintzan. Cityko eliteak dira nagusi horretan.

Negozio lerro honetan frantsez *saucissonage* deitzen dena darabilte, hau da, edozein operazio saltxitxoia bezala xerratzen da, zati bakoitza produktu berezia bailitza paketatua. Hori dela medio, Mexikoko droga *dealer* batek eduki ditzake 20 milioi dolar Panamako banku batean, baina kontua ez dago bere izenean, Bahametan dagoen konpainia batenean baizik. Titularra bizi daiteke Guernseyn eta etekinak AEBetako Wyomingeko korporazio baten izenean jarri.

“Konpainiaren jabeen izenak aurkituko bazenu ere –dio Shaxsonek– pasaporteen fotokopia eta guzti, ezingo zinateke urruti iritsi. Zuzendariok profesionalak dira, antzeko zientoka konpainia kudeatzen dituzte. Hurrengo mailarekin daukaten harremana abokatuaren bidez da, eta honek bere burua ezkutatu du bezeroaren eta legeriaren arteko konfidentzialtasunean. Hesi hori gainditzea lortuko bazenu, gertatuko zaizu konpainia Turks eta Caicos uharteetan dagoela eta ikertzen ari zaizkiola ohartu bezain pronto beste paradisu batera egingo dizula ihes. Epailen laguntza lortuko bazenu ere, hila bete eta urte luzez berandatuko dira”.



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

